

<p style="text-align: center;"><b>IKASGAIAREN izena</b></p> <p style="text-align: center;">1.9. Konpetentzia digitalak eta informaziozkoak</p>	<p style="text-align: center;"><b>Kreditoak</b></p> <p style="text-align: center;">6 ECTS</p> <p style="text-align: center;"><b>OINARRIZKO HEZKUNTZA</b></p>
<p><b>Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan</b> Lehen MAILA eta bigarren SEIHILEKOA</p>	
<p><b>Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak</b></p> <p><b>Gaitasun orokorrak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Talde-lana</b> Helburu komunak lortzera bideratutako lanetan beste batzuekin batera aritu, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatzuz, erantzukizunak nor bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoei aurre eginez.</li> <li>○ <b>Ikasten ikasi</b> Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartzuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko.</li> </ul> <p><b>Gaitasun espezifikoak:</b></p> <p><b>-Ezagupenak:</b> <b>Ikus-entzunezko hedabideetara aplikatutako teknologien ezagutza teoriko-praktikoa eta aplikazioa (argazkia, irratia, soinua, telebista, bideoa, zinema eta multimedia euskarriak).</b></p> <p><b>-Treibetasunak:</b> <b>2.19. Edozein eratako ikus-entzunezko dokumentuak datu-base batean bilatzeko, hautatzeko eta sistemazitzeko eta bitarteko digitalen bidez haiek ikus-entzunezko euskarri desberdinetan erabiltzeko gaitasuna.</b></p>	
<p><b>Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari</b></p> <p>Ikasgai honek informazio-iturri formalen erabileraren garrantzia erakutsi nahi du, egitasunez informatzeko komunikazio-produktuak eraikitzeko tresna diren neurrian. Honako hau erakutsi nahi zaie komunikazioaren etorkizuneko profesionalari: informazioa ongi biltzearen garrantzia; non bilatu eta nola eskuratu informazio-iturri nagusiak; nola berrerabili kazetaritzan erabilia izateko dagoeneko erregistratuta dagoen informazioa, informazio berriak sortuz; eta, azkenik, nola antolatu pertsonalki informazioa.</p> <p>Gainera, alfabetizazio digitalak eta informazionalak ikaskuntza autonomoan eta bizitzan zeharreko ikaskuntzan duten erabilgarritasuna erakutsi nahi zaio ikasleari.</p>	
<p><b>Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kasuen azterketan oinarritzen da batez ere. Azterketa horren bidez ikasleek gertaera erreal baten analisi osoa egiten dute, hura ahalik hobekien ezagutzeko, interpretatzeko, datuak erkatzeko, ezagutzak osatzeko eta berari buruz hausnartzeko.</li> <li>✓ Elkarlanean oinarritutako metodologia.</li> <li>✓ Proiektu txikietan oinarritutako metodologia.</li> </ul>	
<p><b>Prestakuntza-jarduerak</b></p> <p>Jarduera presentzialak (%40):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Eskola magistralak eta teorikoak, %50.</li> <li>✓ Eskola praktikoak, %50.</li> <li>✓ Tutorizazioa.</li> <li>✓ Banakako eta taldekako lana.</li> </ul> <p>Jarduera ez presentzialak (%60):</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ikasketa eta lan autonomoa.</li> <li>✓ Taldekako ikasketa eta lan autonomoa.</li> </ul>	
<p><b>Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema.</b></p> <p>Ebaluazio jarraitua eta prozesu-ebaluazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ahozko aurkezpenak.</li> <li>✓ Banakako eta taldekako lanen kalitatea.</li> <li>✓ Ikasleen parte hartzea mintegietan.</li> </ul>	

✓ Ezagutzen ebaluazioa azken proba baten bidez.

### **Edukien laburpena**

#### Teoria.

- Alfabetizazio digital eta informazionalaren hastapenak.
- Informazioaren gizartea, sare gizartea eta bizitzan zeharreko ikaskuntza.
- Informazio-iturrien bilakaera.
- Interneten eragina.
- Informazio berreskuratzea.
- Informazio espezializatuko baliabideak komunikatzaileentzat: Datu-baseak, estatistikak, erreferentzia-lanak, aldizkari elektronikoak, web soziala, wikipedia, blogak, etab.
- Informazioaren erabilera etiko: egiletzaren aitortzea, aipamenak, etab.
- Edukien sindikazioa.

#### Praktika.

- Nabigatzailearen sarrera eta pertsonalizazioa.
- Blog tematikoen sorrera eta blogari buruzko iturri garrantzitsu baten analisia Interneten.
- Interneteko direktorio, bilatzaile, metabilatzaile eta multibilatzaileen erabilera aurreratua.
- Bilaketa aurreratua Googlen. Googlen garatutako edo Googlek erositako zerbitzu eta aplikazio nagusien esplorazioa.
- Elkarrizketa baterako dokumentazioari buruzko ariketa.
- Datu-baseetan informazioa berreskuratzeko ariketa. Datu-base baten analisia.
- Prentsako datu-baseen erabilera.
- Blogaren gaiarekin lotuta dagoen Wikipediako artikulua baten hautaketa eta analisia.
- Creative Commons baimen bat nola sortu.
- Bibliografia aipamenak nola sortu.
- RSS iturrien irakurgailuen erabilera, weblogetan agertzen diren berrikuntzen jarraipena egiteko eta erreferentziak monitorizatzeko.
- Komunikazioa eta amaierako lana aurkeztu.